

Errefuxiatuak behin-behinean Arrazolarara

Atxondoko Udaleko kideek, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Harrera taldekoek batzarra egin dute asteon. Errefuxiatuen etorkizunaz erabakitzea izan da bileraren asmoa • 9



Leopoldo Zugaza kultur sustatzaile durangarra hil da

Kultura • Leopoldo Zugaza eguaztenean hil zen. Aitzindaria izan zen euskal kultura zabaltzen eta indartzen. Gerediaga Elkartearen eta Durangoko Azokaren sortzaileetarikoa bat izateaz gainera, beste hainbat proiekturen hasierako pausetan parte hartu zuen. • 18

Suizidioari buruz berba egiten hasteko deia

Erreportajea • Agustin Erki-
zia Biziraun elkarteko kidea da,
suizidioak mindutako herritar-
ren elkarteko kidea. Suizidioa
prebenitzeko, suizidioari buruz
berba egitera deitu du. Berbal-
dia eman du Zaldibarren. • 2-3



Ane Elordi zornotzarra, Korrikako zuzendari

Euskara • Asier Amondo ara-
barraren lekukoa hartuta, au-
rerrerantzean Elordi izango da
Korrikako zuzendaria. Erronka
"itzela" dela dio. • 12





**Agustin
Erkizia Olaizola**

Biziraun elkarteko kidea
eta sortzaileetarikoa

AIZARNAZABAL | 1963

“Suizidioari buruz berba egitea da suizidioaren prebentzioak aurrera egiteko bide bakarra”

Agustin Erkizia Olaizola Biziraun elkarteko kidea eta sortzaileetarikoa bat da. Elkartearen suizidioz hildako pertsona maite baten galera bizitzen dabiltzan kideek osatzen dute

SUIZIDIOA • EKAITZ HERRERA

Tabua, estigma, deserosotasuna. Suizidioak sentipen horiek sortu ditzake gizartean, baina Agustin Erkizia Olaizolak (Aizarnazabal, 1963) argi du suizidioari buruz berba egitea dela suizidioaren prebentzioaren tresnarik eraginkorrena. Erkizia Biziraun elkarteko kidea eta sortzaileetarikoa bat da. Elkartearen berak eta bere bikotekidea Eva Bilbao Garmendiak sortu zuten 2016 amaieran, suizidioak eragindako herritarren batu eta haiei laguntzeko. Joan zen astean Zaldibarren egon zen berbaldia ematen.

Biziraun elkarteak bere web orrian dio “isilarazitako errealitate bat argitara” atara gura duela. Horrela da? Suizidioa isilduriko errealitate bat da?

Bai. Suizidioaren errealitatea hor dago, baina bere inguruan oraindik ere estigma dagoenez, gaia ez dago gizartean behar bezala zabaldua. Iruditzen zaigu prozesu luze bat dela, ezin daitekeela egun batetik bestera aldatu. Alde horretatik, Zal-

dibarkoaren moduko egitasmoak pozgarriak dira, gaiari pixkanaka-pixkanaka heltzeko. Badakigu gai zaila dela, baina horrelako solasaldiek ondorio positiboak izaten dituzte. Gaiarekiko sentsibilizazioa lagungarria da.

“Euskal Autonomia Erkidegoan, bi egunetik behin herritar bat hiltzen da berte buruaz beste eginda”

Zaldibarkoaren moduko berbaldiak han-hemenka egiten dituzue. Zer esaten dizute entzutera joaten diren herritarrek?

Gaiarekiko ezjakintasun handia dagoenez, datuak bistaritzen ditugunean jendea nahiko kezkatuta geratu ohi da. Suizidioa uste baino zabalago dagoela ikusten dute.

Suizidioa uste baino zabalago dagoela diozu. Badago estatistikarik?

Bai. Euskal Autonomia Erkidegoan, bi egunetik behin herritar bat hiltzen da bere buruaz beste eginda. Datu esanguratsua da. Horrez gainera, nor bere buruaz beste egiteko saiakerak daude. Euskal Autonomia Erkidegoan, hamar suizidio saiakera egoten dira egunero. Eta badago kontuan hartu beharreko beste datu bat ere. Bere buruaz beste egiten duen pertsona bakoitzak beste sei pertsona uzten ditu beheja jota. Minduta, kaltetuta irteten diren pertsonak dira. Hori ere errealitate gordina da, eta aurrera egin behar diogu.

Horrenbestez, datuek argi uzten dute beharrezkoa dela gaia ikusgai egitea.

Bai. Gaia konplexua da, ez dugu miraririk egingo. Baina orain arte gauza gutxi egin da prebentzioaren inguruan. Eta orain, neurri batean, horren ondorioak pairatzen ari gara. Datuek ez dute behera egiten. Beraz, har dezagun kontrako bidea.

Has gaitzen zerbait egiten. Eta zerbait horretan, egia da gauza batzuk apurka-apurka egiten ari direla. Ez guk nahiko genukeen abiaduran, baina egiten dira. 2019ko ekainean, adibidez, estrategia bat onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Osasun Sailak ikastetxeetarako estrategia bat ere aurkeztu du. Gauza batzuk badira. Astiro bada ere, aurrera goaz.

Gaiari buruz berba egitea, beraz, onuragarria izan daiteke? Berba egiten hasi behar dugu?

Dudarik gabe. Hitz egiten ez dena, bestela, ez delako existitzen. Hori edozein gairekin gertatzen da, eta horren lekuko dira gizarteko beste hainbat arlotan egindako aurreapausoak. Hiesaren inguruan, minbiziaren inguruan, indarkeria mentalaren arloak estigma izaten jarraitzen du oraindik ere, baina aurrera egiten gabiltza pixkanaka. Gai gogorrek diren arren, hitz egitea da aurrera egiteko bide bakarra. Are gehiago esango nuke. Isiltasuna da suizidioak duen mediorik hobena bereak eta bi egiteko.

Zeintzuk dira suizidioak mindutako senide eta lagunei gailentzen zaizkien sentipen nagusiak?

Sentimendu asko dago. Gogorrenetarikoa erruduntasun sentipena da. Pertsona batek bere gorabeherak izan ditzakeen arren, nekez aurrera egin daiteke bere bizitzari amaiera emango diola. Bat-batean harturiko erabaki horrek, baina, ustekabean

harrapatzen gaitu. Ustekabe horrek hutsune bat sortzen digu. Eta hutsune horrek erruduntasun sentipena dakar, besteak beste: zelan ez dut halakorik aurreikusit? Hor gure buruari tranpa egiten diogu. Bi denbora-tarte nahasten ditugulako. Oraina eta iragana. Zer gertatuko zen jakin izan bagenu beste portaera bat izango genuela uste dugu orainaldian. Baina iraganean iraganeko datuak genituen eta, horrenbestez, bestelako portaera bat genuen. Bi plano horiek bereizten ikasi behar izaten dugu.

“Suizidioak minduta bazaude epaitua sentitzen zara: ‘zelan ez zenuen halakorik aurreikusit?’”

Bestelako sentipenik izaten duzue?

Bai, bai. Suizidioak, estigma denez, bakardadea dakar. Gizarteak lagundu nahi du, baina ez daki zelan. Suizidioak mindutako herritar askok aurreko egoerara itzuli gura du, baina hori ezinezkoa da kasu askotan. Zuretzat hain garrantzitsua den baten bat betirako joan delako, gainera, era hain berezi horretan. Beste heriotzak, bat-batean joaten direnenak ere oso gogorrek dira, baina ez dute estigma hori. Suizidioak minduta bazaude,

epaitua bezala sentitzen zara. Gure kasuan, "nola arraio ez zara jabetu semeak halakorik egingo zuela?" sentituz bezala. Galdetu izan didate halakorik kalean. "Ez zineten konturatu?". Bizitza normal baten logikatik egiten diren galderak dira, orain ulertzen ditudanak. Baina horrelako zerbait jasaten duzunean, oso mingarria da arduragabekeria moduko bat leporatzen dizutela sentitzea. Beraz, bakardadea, epaia, sentitzen dituzu. Gero, haserrearek ere badira. Joan berri denarekin haserretzen zara. Berari leporatzen diozu zure bakardadearen errua. Horiek guztiak suizidioaren do luaren zati dira.

Zelan lagundu dakieke suizidioak minduta geratu diren senide, gertuko eta lagunei?

Gauzarik konplikatuenak erarik sinpleenean konpontzen saiatu gaitzake. Guk eskertzen duguna da gure inguruan baten bat egotea. Eta nahikoa da pertsona bat. Hau da, inguratu gaitzen pertsona. Lehen esan dut gure sentimendu nagusietako bat bakardadea dela, epaitua sentitzea. Eta horren ondorioz gure burua isolatzeko joera hartzen dugu. Beraz, inguratu gaitzen guri entzuteko prest daudenez, gure negarrak epairik gabe eta aholkurik gabe entzuteko prest daudenez. Hori oso inportantea da guretzat. Horrelako zerbait gertatu zaionari, galdetu, esan zelan dagoen, eta negar egin gura badu, ez aldendu. Entzuketara aktiboa egin.

Eta zelan hasi gaitzake suizidioa prebenitzen?

Hau guztia bat-batean aldatzea ezinezkoa da. Denbora asko behar du, baina badira abiapuntuak. Osasun mentalak, istripuek, euren nazioarteko egunak dituzte. Eta suizidiorako prebentzioa lantzeko estrategia egin zenean, erakunde publikoei eskatu genien irailaren 10a, Suizidioaren Prebentziorako Nazioarteko Eguna ere lantzen hasteko. Gaia ikusarazten hasteko eta errealitatearen berri emateko. Dena dela, hau oso konplikatua da. Ez dezagun uste hau Osasun Sailaren ardura denik. Bestalde, prebentzio lana ere

bada gai honi buruz lagunartean, familian, auzo-elkartean hitz egitea. Orain arteko bidetik, ez hitz egitetik, ez goaz inora. Urratsak eman behar ditugu solasaldien bidez gaia lantzen, hezkuntzan sartzen. Eta gero, goibel dagoen zure lagun bati laguntzeko ez duzu aditua izan beharrik. Lagun ona bazara, osasun zerbitzuei baino lehenago esango dizu zuri zer duen. Bere buruaz beste egiten duen %30 bakarrik joan izan da osasun zerbitzuetara.

Gai honi buruz lagunartean, familian edo auzo-elkartean berba egitea prebentzioa lantzea da

Kazetariok zein erantzukizun dugu suizidioari buruzko informazioa gizarteratzeko orduan?

Tentuz jokatu behar da, egia ezkutatu gabe, baina lagungarriak ez diren informazioak alboratuta. Inoiz argazkiak argitaratu izan dira. Horiek ez dute laguntzen. Beste hainbatetan bere buruaz beste zelan egin duen argitaratu izan da. Horrek ere ez du laguntzen. Albiste den pertsona esanguratsuren bat suizidio bidez hil dela jaso gura badugu, esan dezagun suizidio bidez hil dela. Minbiziak jota edo beste gaitzen batek jota izan dela esaten dugun bezala. Bestalde, gauza garbi ez badago, ez nuke informaziorik emango.

Suizidioa albiste egiteak imitaziozko jokabide bat sortu dezake?

Informazioa morboarekin lantzen bada, horretarako arriskua egon daiteke. Robin Williams aktoreak bere buruaz beste egin zuenean, hedabideek zelan egin zuen kontatu zuten. Ez zuten aktoreak barruan zuen sufrimendurik landu. Zelan egin zuen argitaratu zuten. Horren ondorioa izan zen bere buruaz beste era horretan egin zuten kopurua %30 igo zela. Kili-kolo dabilen bati bere buruaz beste zelan egin dezakeen adierazteak erabakia hartzera bultzatu dezake.

Euskal Autonomia Erkidegoan, bi egunetik behin herritar bat hiltzen da bere buruaz beste eginda

Suizidioagaitiko heriotzak trafiko istripuagaitikoak baino 2,7 bider gehiago dira. Elkarrekin berba egitera deitu dute

DATUAK • EKAITZ HERRERA

Gaia hor dago eta datuak hor daude. Espainiako Suizidioaren Behatokiak 2020an egindako ikerketaren arabera, Espainiako estatuan suizidioa da naturala ez den heriotza kausa nagusia. Bere buruaz beste egindakoen heriotza kopurua trafiko istripuz hildakoena baino 2,7 bider handiago da. Adin tarteari dagokionez ere, bada datu esanguratsu bat: Espainiako estatuan suizidioa da 15etik 29 urtera bitarteko gazteen heriotza kausa nagusia, minbiziaren ondoren. Kopuruak trafiko istripuen, intoxikazioen, itotzeen eta gura bako erorketen gaineratik daude. Euskal Autonomia Erkidegoan, egun birik behin herritar bat hiltzen da bere buruaz beste eginda. 2021ean 148 kasu zenbatu zituzten. Datu hauek eskuetan, elkarrekin gaiari buruz berba egitera deitu dute. Premisa honetan ipini dute abiapuntua: suizidioari buruz

berbarik ez egiteak arazoa konpontzen ez badu, egin dezagun berba.

Alde horretatik, Biziraun moduko elkarrekin egiten duten lana giltzarria da gaia ikusgai egin eta suizidioak mindutako herritarrei laguntzeko. Elkarrekin 60 bat bazkide ditu gaur egun, baina 100 baino gehiago dira dagoeneko

Biziraun elkarrekin elkarrekin laguntzeko taldeak ditu. Bilbon eta Donostian ditu taldeak

bertara jo dutenak. "Suizidatzeko saiakera egin duten herritarrak etorri izan dira, baina suizidioak kolpatutako herritarrei laguntzen diegu gehienbat", azaldu du Agustin Erkiziak. Elkarrekin lan tresna nagusia elkar-laguntzarako taldeak dira. "Gurekin harremanetan ipintzen denari laguntzen

diogu. Solasaldi bat izaten dugu lehenik, jakiteko zein galera izan duen eta galera hori noiz gertatu zen. Zein tratamendu daukan ere galdetzen diogu, emozionalki zelan dagoen jakiteko. Izan ere, elkar-laguntza talde batean sartu aurretik, ikusi behar dugu dolua apur bat aurreratuta dagoen ala heriotza horrek sorturiko zauria irekita dagoen. Zauria irekiegi badago, ez da gomendagarria elkar-laguntza talde batean sartzea, hor topatuko dituenak gogorreki izan daitezkeelako. Aldiz, sartzeko moduan badago, elkar-laguntza talde batean sartzen dugu. Hilabeteroko maiztasunarekin batzen gara taldeka. Saioek ordu eta erdi, ordu bi inguru irauten dute. Talde bat Bilbon daukagu, eta Donostian bestea", azaldu du Erkiak. Biziraunekin harremanetan jarri gura duenak info@biziraun.org helbide elektronikora idatzi dezake. Nafarroan Besarkada elkarrekin dago (info@besarkada-abrazo.org), eta Espainiako estatuak ere badu prebentziorako arreta zerbitzua (024 telefono zenbakia). Bestalde, Osakidetza hainbat informazio eta prebentzio tresna du bere web orrian. Horretarako, Osasun Eskolari dagokion atalera jo behar da, eta handik Osasun Mentalari dagokion atala bilatu.



Biziraun elkarteko Agustin Erkiziak Zaldibarko Liburutegi Zaharrean eskaini zuen berbaldia, urriaren 24an.



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari



urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Bat egiteko
garaia da



Eneko Sagardoy, Miguel Zugaza, Elisabeth Luengo, Karrika eta Jon Sarobe sarituko dituzte Durango Sarietan

Gala zapatuan izango da, 19:00etan, San Agustin Kulturgunean, eta Yolanda Alzolak eta Peru Magdalenak gidatuko dute



Saria jasoko duten onuradunetarikoz batzuk.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak Durango Sariak gala egingo du zapatuan, herriko elkarte, klub zein norbanakoek kirolaren eta kulturaren arloan egindako lana publikoki aitortzeko. Prozesua urte hasieran hasi zen eta, epaimahaiaren zein herritarren bozketen ondoren, Eneko Sagardoy, Miguel Zugaza, Asier Aguirre, Elisabeth Luengo, Jon Sarobe, Juanjo Moreno, Karrika Antzerki Taldea eta Tabirako Saskibaloia Taldea izango dira sarituak.

Horrez gainera, eta Durango Kirol arloan urte luzez eginiko lana eskertzeko asmoz, Durango Sariak iaz zendutako Juanjo Moreno ere omenduko dute. Sari-

tariko bi herri bozketa bitartez aukeratu dituzte. Gainerakoak epaimahai batek hautatu ditu.

Gala zapatuan egingo dute, 19:00etan, Durango San Agustin Kulturgunean, eta udal arduradunek bertaratzeko deia egin diete herritarrei: "Sari hauen bitartez, Durango kirol eta kulturako zenbait arlotan lanean dabiltzan talde zein norbanakoek egiten duten lana aitortu gura dugu. Durango kultur eta kirol ekosistema oso indartsua du, eta udaletik uste dugu are gehiago aitortu behar dugula egiten duten lana", adierazi dute Ima Garratatzu alkateak eta Julian Ríos alkateordeak ohar batean.

Gonbidapenak eskuragarri

Galara joan gura duten durangarrek gonbidapena jaso beharko dute Durango Arte eta Historia Museoa. Gala hau Yolanda Alzolak eta Peru Magdalenak aurkeztuko dute.

Euskaraldia aurkeztu eta aurtengo lokala inauguratu dute Durangon

Lokala zabalik dago, Zumalakarregi eta Andra Mari kaleek bat egiten duten kantoian. Bertaraten denak Euskaraldiaren aurtengo edizioari buruzko informazioa jasoko du

DURANGO • J.D.

Euskaraldiak motorrak berotzeari ekin dio Durangon. Joan zen egunean, aurtengo edizioa aurkeztu eta lokala inauguratu zuten. Markel Sánchez eta Ainhoa Zabarte Berbaro elkarte-kideek egin zituzten aurkezpen lanak, euskalgintzan ibiltzen diren eragileen eta ordezkari politikoen aurrean. Lokala azaroaren 18ra arte egongo da zabalik, eta bertaraten denak kanpainari buruzko informazioa jasoko du. Aurtengoa Euskaraldiaren hirugarren edizioa izango da. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da, Euskal Herri osoan.



Durango Euskaraldia antolatzen dabiltzan kideetarikoz batzuk, aurkezpen ekitaldian.

Gastrobonuak eta komertzio bonuak martxan Durangon

Kanpaina azaroaren 30ean amaituko da. 10 euroko bonuagaz 15 euroko erosketa egin ahalko da

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak dendetan erabiltzeko 5.000 bonu eta ostalaritzan baliatzeko beste 5.200 bonu kaleratu ditu, herriko komertzioa bultzatzeko. Herritarrek 10 euroan erosi ahalko dituzte bonuak, eta 15 eurora arteko erosketak

zein kontsumizioak egin ahalko dituzte horiek. Durangar bakoitzak kategoria bakoitzeko lau bonu erosi ditzake gehienez. Bonuak bonua.durango.eus atarian eskuratu daitezke. 65 urtetik gorakoek Turismo Bulegoan edo HAZ bulegoan eskuratu ditzakete.



Durango udal agintariak, dendariak eta ostalariak.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko azaroaren 4a
20. urtea - 912. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko merkatu plaza berriak kultur ikuskizunetarako anfiteatroa eta ostalaritza lokala izango ditu ekoizleen gunez gainera

Proiektua idazteko, udalak diru partida bat gorde du datorren urteko aurrekontuetan



deak 265.000 euroko diru partida gorde du datozen urteko aurrekontuetan. Datozen asteetan, proposamenak jasotzeko epe bat zabalduko dute. Iritziak eta ekarpenak jasoko dituzte, gero merkatuan inplikaturiko eragileekin kontrastatzeko. Behin hori eginda, udalak proiektua idatzi eta lehiaketa publikora aterako du. Oraingoz, merkatu plaza berritzeko obrek ez dute data zehatzik, baina udalak "datozen hileetan" aterako du obra lizitaziora.

Udal agintarien berbetan, gaur egungo merkatu plaza "zaharkituta" dago eta beharrezkoa du eraldaketa bat "garai eta beharrian berrietara egokitze"ko". Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak adierazi dutenez, udalak "norabide berri bat" eman gura dio merkatu plazari. Alde horretatik, beharrezkotzat jo dute "instalazioen modernizazioa".

Efizientzia energetikoari begira

Bestalde, udalak esku artean duen aurreproiektuak energiaren erabilerari buruzko gorabeherak ere jasotzen ditu. Udalak jakinarazi duenez, "merkatuaren eraikinak, orientazioagaitik eta azalergaitik, potentzial berriztagarri handia du estalkian". Teilatua 1.600 metro karratu zabal da, eta azalera hori "eguzki plakak instalatzeko aprobeztatu daitekeela" iradoki du udalak. Alde horretatik, "iraunkortasunaren eta autosufizientzia energetikoaren aldeko apustu garrantzitsua" egin dute. Horrez gainera, eraikina birmoldatzeko lanak "karbono arrastorik txikiengaz" egitea aurreikusi dute, "berotegi efektuko gasen isuriak ahal den neurrian" murriztuta.



Merkatu plaza berriaren infografiak.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Baserritarren merkatu gunea, kultur ikuskizunetarako anfiteatroa, ostalaritza lokala, ikastaroak egiteko aretoa, aisialdirako gune librea eta umeentzako jolasunea. Durangoko Merkatu Plazak elementu horiek guztiak izango ditu etorkizunean.

Halantxik jakinarazi du udalak, ohar bidez, asteon. Aurreproiektua prest daukate eta dagoeneko aurkezpen lanak ere egin dituzte merkatu plazan inplikaturiko eragileen aurrean. Hurrengo pausoa proiektua idaztea izango da. Eta, hain zuzen ere, hori egiteko gobernu tal-

Luis Urrengoetxea kaleko jaiak asteburu honetan

Sukalki txapelketa eta askotariko musika kontzertuak egongo dira: Kittu, Kaos Etiliko eta Reincidentes

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Asteburu honetan, jai giroak Zornotzako Luis Urrengoetxea kalea hartuko du. Bertako tabernariak hainbat ekitaldi antolatu dute. Gaur, adibidez, 20:00etan, Ostikda elektrotzarangak girotuko ditu herriko kaleak. Ondoren, Mixeraliak taldeak Euskal Herria plazan joko du. Bihar, 11:00etan, umeentzako jokoak hasiko dituzte plaza

horretan bertan. Eta, ondoren, Kittu talde zornotzarrak kalejira hasiko du Lopena tabernatik. 12:00etan ekingo diote kalejirari. Sukalki txapelketan parte hartzen dutenek 14:30ean entregatu beharko dituzte lapikoak. Gauean punk rock doinuaren txanda izango da. Kaos Etiliko eta Reincidentes taldeek kontzertuak joko dituzte Zelaieta parkean, 21:30ean hasita.



Luis Urrengoetxea kaleko giroa aurtengo Karmenetan.

"Tourra ikaragarria da eta izango da Zornotzarentzat"

Andoni Agirrebeitia alkatea Tourreko arduradunekin izan

ZORNOTZA • E.H.

Euskal Autonomia Erkidegoko delegazio bat Parisen egon zen joan zen astean, Tourreko arduradunekin batera. Tartean egon zen Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkatea. 2023ko Tourraren zehaztasunak eman zituzten, eta berretsi zuten Tourreko hirugarren etapa Zornotzan hasiko dela. Lasterketa uztailearen 3an jokatuko da eta ibilbidearen lehenengo zatia Durangaldetik igaroko da. Zornotzatik irten eta N-634 errepidetik

aurrera eginda, txirrindulariek Iurreta, Abadiño eta Berriz igaroko dituzte. Gero, Trabakua igo eta kostaldera joko dute. Baionan izango dute helmuga. Agirrebeitiaren berbetan, Tourrak Euskal Herria ezagutaraziko du. "Zornotzarentzat ere ikaragarria da eta izango da. Gran Départ Pays Basqueko hirugarren etapak gure herriko irtengo du eta, zalantzarik barik, gure udalerriko historiako ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa izango da", esan du.

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei




BIZKAIA
946 523 935
GIPUZKOA
943 903 450
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

Okm:

batzen gaituen distantzia



> anboto
kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Garaik herri kirolean dabilzan emakumeen jardunaldia hartuko du azaroaren 5ean

Topaketan 6 kirolarik parte hartuko dute eta tartean Karmele Gisasola mallabitarra egongo da. Jardunaldia herriko frontoian egingo dute, 11:30ean

GARAI • EKAITZ HERRERA

Gaittun elkarteak eta Bizkaiko Foru Aldundiak herri kirolean dabilzan emakumeei ikusgaitasuna emateko jardunaldia antolatu dute Garain. Hain zuzen ere, garaitar bat da, Iratxe Martínez Mazaga, ekitaldia antolatzen dabilen kide-tariko bat. "Sei emakumek egingo dute herri kirolen erakustaldia. Euretarioko bat gipuzkoarra da, eta gainerako bostak bizkaitarrak. Kirolarien artean, Karmele Gisasola mallabitarra egongo da", azaldu du Martinezek. Ekitaldian zehar, bakoitzak bere modalitateari dagokion erakustaldia egingo du. Txingatan, aizkoran eta harri jasotzen egingo dute, besteak beste. Ekitaldia 11:30ean hasiko da eta ordubete inguru iraungo du. Horrez gainera, herri kirolean ibiltzen diren emakumeen argazkiak ipiniko dituzte Garaiko frontoian, kirolari bakoitzaren gogoeta txiki batek lagunduta.

Martinezek azpimarra berezia egin dio emakumeen kirola



Karmele Gisasola mallabitarra izango da topaketan parte hartuko dutenatariko bat.

ikusgai egiteari: "Orain arte, herri kirolak gizonetzkoen enfokaturatuta egon dira. Orain esan liteke emakumeen kirola argi apur bat ikusten hasi dela. Emakume kirolariak asko dute esateko. Horregaitik kontzentratu gura izan ditugu ekitaldi bakar batean, jendeak jakin dezan egundoko kirolariak daudela. Ga-

raira etorriko direnek profil esanguratsua dituzte. Suhlitzaila da bat, eta Gurutzetako ospitaleko mediku zirujaua beste bat. Kirol hau pasioagaitik egiten dute, ez dute ezer irabazten. Gizonezkoek, oster, bai. Beraz, inportantea da emakumeek pasioagaitik egiten duten hau ikusaraztea".

Ortugintzatik bizi gura dutenek lanerako aukera bat sortu ahalko dute Berrizen

Onuradunak bi izango dira eta sektoreko adituen aholkupean lan egingo dute, formakuntza jasota

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Urkiola Landa Garapenak ortugintza bultzatzeko eta nekazaritza ekoizle berriak topatzeko programa bat ipini du martxan: Haztegia. Hori dela eta, lur arlo bat atondu dute Berrizen, ortugintzan hasi gura duten ekoizleek bertan garatu ditzaten euren enpresa-proiektuak. Lursailak nekazaritzarako beharrezkoak diren azpiegitura guztiak eskainiko ditu: berotegiak, makinak, erremintentzako txabola eta biltegia. Negutegiak, adibidez, atonduta daude eta urtea amaitu aurretik gehiago ipiniko dituzte. Horrez gainera, ekintzaileek nekazaritza ekologikoan aditua den pertsona baten aholkularitza zerbitzua eta formakuntza saioak izango dituzte.

Ortugintza ekologikoan enpresa-proiektu bat garatu gura duten ekoizleek zabalik dute hautagaitza aurkezteko epea. Onuradunak bi izango dira eta

sektoreko profesionalen aholkularitzapean lan egingo dute, etenbako formakuntza jasota. Lursailean berdura ekoizti eta hori merkaturatu ahalko dute, transakzio ekonomikoak egiteko beharrezko lege-estalduragaz eta Gizarte Segurantzaz jasota. Enpresa-proiektua 3 urtez garatu ahalko dute arlo horretan, gehienez.

Lursailak nekazaritzarako beharrezkoak diren azpiegitura guztiak eskainiko ditu

Interesdunak Urkiola Landa Garapeneko kideekin ipini beharko dira hartu emanetan: 946203611 telefonoan zein landagarapena@landagarapena.eus helbide elektronikoa.

Azaroaren 15era bitartean, garbigune mugikorra egongo da Iurretako Askondon

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Garbigune mugikorra ipini dute Iurretako Askondo kalean, aste honetan. Herritarrei birziklapena errazteko eta hurbiltzeko edukiontzi ibiltari honetara etxean sorturiko hondakinak bota daitezke, eta azaroaren 15era bitartean egongo da bertan. Besteak beste, etxeko tresna txikiak, sukaldeko tresnak, sakeleko telefonoak, kableak, pinturak, disolbatzaileak, pilak eta aerosolak utzi daitezke bertan. Baita etxeko olio ere, ontzi itxietan. Joan zen martxoan ere ipini zuten garbigune mugikorra Iurretan.



Hondakinak batzeko edukiontzi ibiltaria Askondo kaleko aterpearen alboan ipini dute.



Durangaldeko ekoizle ugari Durangoko azokan salgai ipintzen dute ortuko jeneroa.

Betikoak
flexografia

BULEGORAKO ZIGILUAK
FOTOLITOAK

PREMIE

Ekoscan

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Errefuxiatuak Arrazolara, Axpeko etxeagaz zer gertatuko den jakin arte

Harrerako kideen berbetan, idazkariaren txostenak erabakiko du Axpera bueltatu daitezkeen ala ez



Hainbat herritar udaletxe azpian egon zen batzarra amaitu arte.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguazten arratsaldean, Atxondoko udaletxean batzarra egin zuten Harrera Taldeko kideen etorkizunaz erabakitzeko. Bertan, gobernu taldeko ordezkariak (EAJ), oposiziokoak (EH Bildu), Eusko Jaurlaritzakoak eta Harrera Taldekoak batu ziren. Batzarrean deituriko kideak 17:00etan igo ziren Atxondoko udaletxe oso bilkura aretora. Atxondarrek txalo eta animo mezu artean agurtu zituzten Harrera Taldeko lau errefuxiatu eta taldeko ordezkari biak. Ordu eta erdi inguru

egon ziren batzartuta, eta "soluzio" batez irten zuten bertatik. Harrerakoek batzarraren nondik norakoak berri eman zieten udaletxe azpian zain egon ziren herritarrei. "Bilera ondo egon da eta Harrera zer den eta zer egiten dugun argi geratu da. Bileran zerbait konpromiso hartu da. Eurek soluzio arin bat eman dute eta egunean, azaroak 3, Arrazolako etxe bateko giltzak izango ditugu", jakinarazi zuten batzarrean parte hartu zuten Harrerako kideek. Eta "horren truke" Atxondoko Harrerakoek udaletxe az-

piko kanpamentua desmuntatu beharko dute.

Bestalde, udalak azaroaren 10erako "beste konpromiso" bat hartu duela jakinarazi zuten. "Axpeko etxe txostena aterpetxe lizentzia ateratzeko eginda dago. Baina kontua da ea lizentzia hori barik etxea erabili daitezkeen. Horri idazkariak egin behar duen txostenak erantzungo dio", azaldu zuten Harrerakoek. Txosten hori azaroaren 10erako egoteko konpromisoa hartu zuten udal ordezkariak. "Idazkariaren txosten horrek aterpetxean lizentziarik barik egon gaitezkeela badio, azaroaren 11n Axpera joango gara. Eta ezezkoa badio, orduan ikusiko dugu zer egiten dugun", gaineratu zuten.

14 egun udaletxe azpian

Urriaren 21ean, hainbat herritarrek manifestazioa egin zuten errefuxiatuen egoera salatzen, eta, ondoren, kanpamentua muntatu zuten udaletxe azpian. Atxondon Harreran dauden zazpi errefuxiatuak kanpaleku horretan bizi izan dira harrezkero, hamalau egunean. "Itzela izan da egun hauetan sentitu dugun berotasuna. Hamalau egun hauetan, milaka dira gure bihotzetara heldu diren keinu txikiak", esan dute errefuxiatuek.

Erosketa bonuen neguko kanpaina martxan Elorrioren, azaroaren 30era arte

Neguko kanpainako bonu hauei eskerrak, 30 euroko erosketa bategatik 20 euro ordainduko dute elorriarrek

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko merkataritza sustatzeko helburuagaz, 2022ko Erosketa Bonuen Neguko Kanpaina egingo dute azaroan Elorrioren; azaroaren 1etik 30era, hain zuzen ere. Bonoekin, 30 euroko erosketa bategatik 20 euro ordainduko dute herritarrek. Elorriarrek birritan baliatu ahaliko dute deskonturako aukera, edo bonu biak erosketa bakarrean erabili ahal izango dituzte. Kasu hauetan, erosketak 60 eurokoa

izan beharko du gutxienez. Horrez gainera, bonuok komertzio bakarrean edo bitan erabili daitezkeela jakinarazi dute; betiere kanpainara atxikitutako negozioak badira. 31 komertzio atxikitu dira kanpainara, eta bakoitzak 33 bonu ditu.

Udaberriko kanpainan egin zuten lez, merkatariek kudeatutako aplikazio informatikoa erabiliko da bonu fisikoaren orde. Horrela, herritarrek NANA baino ez dute erakutsi beharko.



Elorrioko merkatariek María Herrero alkateordeagaz.

ABADIÑO • J.D./M.Z.

Abadiñoko hilerrian prest dago hildakoen errautsak botatzeko gunea berria. Martxan ipini aurretik, udalbatzarrean onartu behar dira gunea erabili ahal izateko tarifak. Azaroko udalbatzarreraren eraman gura dute gaia. Horiek horrela, azpiegitura berria 2023ko urtariletik aurrera egongo da erabilgarri, udal arduradunek azaldu dutenez. Martxan ipintzen denetik aurrera, udaletxean egin beharko da gunea erabili ahal izateko eskaera.

Mikel Garaizabal alkateak esan du hilerri bat baino gehiago bisitatu eta Gasteizkotik hartu dutela 'Errautsen Lorategia' deitu dioten gunea sortzeko ideia. "Oroimenerako sorturiko gunea da, errautsek lurragaz bat egingo duten ingurune eder eta zaindua", adierazi du Garaizabalek.

Javi Crespo alkateordeak azaldu duenez, "gomendio orokorra hildakoen errautsak hilerrian uztea da; instalazio hori, naturagune zoragarriaren egoteaz gainera, horretarako sistemarik egokienak ditu eta ingurumena babesten laguntzen du".

Abadiñoko hilerrian errautsak uzteko gunea berria zabalduko dute datorren urteko urtarrilean

Azaroko bilkuran gune berriko tarifak onartu gura dituzte



Mikel Garaizabal alkatea eta Javier Crespo alkateordea 'Errautsen Lorategian'

Errautsak botatzeko gunea egin zuten eraikina margotu dute. Denak 32.562 euroko aurrekontua izan duela azaldu du udalak.

hartzten dituen eraikina margotu dute. Denak 32.562 euroko aurrekontua izan duela azaldu du udalak.

Next Generation funtsetatik 1.315.327 euro Elorriora, haurreskola berritzeko

Proiektuak 2 milioi euroko aurrekontua du gutxi gorabehera

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Haurreskolako proiektua martxan ipintzeko, Elorrioko Udalak 1.315.327 euroko laguntza ekonomikoa jasoko du Next Generation funtsetatik. Udaltik jakinarazi dutenez, Espainiako estatu osoan tokiko 1.065 proiektu aurkeztu dituzte laguntza jasotzeko, eta horietatik 405 aukeratu dituzte.

Udal gobernuak legegintzaldiaren hasieratik izan du mahai gainean haurreskola eraberritzea, eta 2019an diagnostikoa egin zuen hezkuntza komunitate osoagaz batera, eraikina birgaitzeko aukerak aztertzeko. Diagnostikoan ateratako emaitzak aintzat hartuta, 2020an

erabaki zen zein esku-hartzeko egingo ziren eraikinean. Funtsean, haur eskola birgaitzea eta handitzea zen proposamena. Iaz lizitatu zen proiektuaren idazketa.

"Hiru urtez jardun dugu lanean honaino heldu arte. Espainiako estatuko proiekturik baloratuen izan da gurea, eta horrek erakusten du ondo egin ditugula gauzak. Oso harro gaudete. Prozesu honetan gugaz izan diren pertsona guztien inplikazioa eskertzeko garaia ere bada: hezkuntza komunitatearena, udal langileena, proiektua idatzi duen taldearena", adierazi du María Herrero udaleko hezkuntza zinegotziak.

Beheko solairuko lokaletan etxebizitzak egin ahalko dira Mañariko Evaristo Bustintza 'Kirikiño' kalean

Orain arte Andra Mari kalera mugatuta zegoen aukera herriguneko kale zentralera zabaldu dute, eskaera bat aintzat hartuta

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Evaristo Bustintza 'Kirikiño' kaleko beheko solairuetan etxebizitzak egin ahalko dira laster. Azken udalbatzarrean aho batez onartu zuten erabakia. Bete beharreko tramiteak betetzen dituenean (buletinean publikatzea, alegazioen epea, behin betiko onarpena...) sartuko da indarrean dokumentua; beharbada, urtea amaitu aurretik.

Beheko solairuko lokalak edo merkataritza erabilera duten lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza 2015ekoa da, baina Andra Mari kalera mugatuta zegoen. Evaristo Bustintza ez zegoen ordenantzaren, merkataritzarako gune lez kontsideratzen zelako. "Baina errealitatea beste bat da gaur eta aukera hori ematea inportantea dela iruditzen zaigu. Jendeak etxebizitzak gura ditu", arrazoitu du Ainara Otxotorena alkateak. Hain zuzen, kale horretako behe solairu batean etxebizitzak egiteko eskaera bat jaso zuten. Laster kale biak jasoko ditu ordenantzak eta posible



Evaristo Bustintza 'Kirikiño' Mañariko kale nagusiko irudia.

izango da beheko solairuak merkataritzara bideratzea nahiz eta bertan etxebizitzak egin.

Mañariko Denda

Evaristo Bustintza kalean dago Mañariko Denda izandako lokala, gaur egun udalaren jabetzako dena. Denda berriro zabaltzeko orain

Azken udalbatzarrean aho batez hartu zuten erabakia. Urtea amaitu aurretik gauzatu daiteke

arteko ahaleginek ez dute fruiturik eman. Ildo horretatik, udalaren azken urratsa hau da: Jaurlaritzako Hazi fundazioak egitasmo bat martxan du landa eremuko herrietan ekintzaileek eta enpresek erabili ditzaketen azpiegiturak (merkataritza gune lez, biltegi lez...) identifikatzeko, eta interesdunei alokagai ipintzeko. Mañariko lokala bertara batu dute, Urkiola Landa Garapeneren bitartez.

Mañarian hobariak onartu dituzte auto elektrikoentzat eta familia ugarietzat

MAÑARIA • J.D.

Mañariko ordenantza fiskaletan hobari mota berri bi sortu dituzte eta indarrean daude dagoeneko. Alde batetik, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan auto elektrikoek %70eko hobaria izango dute aurrerantzean, eta ibilgailu hibridoek

Auto elektrikoek %70eko hobaria izango dute, eta ibilgailu hibridoek %50ekoa

%50ekoa. Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen erabiltzaileei laguntzea da hobari hauen helburua.

Mañariko Udalak onartu eta indarrean ipini duen bigarren hobaria familia ugarietarako da. Hiru seme-alaba dituzten familiek %70eko hobaria izango dute aurrerantzean. Eta lau seme-alaba edo gehiago dituzten familia ugarietarako %80ko hobariagaz lagunduko diete.

Apustu bat martxan da: mallabitar bi mungiar biren kontra pentatloiko probetan

Abendu hasieran egingo dute, Mungiaiko Arrieta auzoan

MALLABIA • J.D.

Afalosteko tertulia animatuak lagun arteko apustuen sorleku izaten dira sarritan eta giro horretatik irten du mallabitar biren eta mungiar biren arteko apustu batek.

Alde batean, Gartxot Mugarza eta Aitor Garitagoitia mallabitarak daude; bestean, Aitor Fuldain eta Xabier Sabalza mungiarak. Laurak lagunak dira. Baina apustua ulertzeko gisasolarren familia ere sartu beharra dago ekuaizian. Ioritz eta Jon Gisasola herri kirolariak Mallabiko bikotearen kuadrillakoak dira, eta mungiarren lagunak.

Aurkezpenak eginda, hasi gaitzeko istorioa kontatzen. Mungiarrek gisasolarrengana etorri ziren behin, herri kirolak probatu gura zituztelako. Lagunak han zeudela jakinda, Mugarza eta Garitagoitia ere bertaratu ziren. Ondoren, denek elkarregaz afaldu zuten eta afalosteko giroan gor-

puztu zen apustua: nork lan hobe egin herri kirolen pentatloiko bost probetan.

Apustua abendu hasierako asteburu batean egingo dute, Mungiaiko Arrieta auzoko elkarte gastronomikoaren ondoko plazan.

Mugarza-Garitagoitia eta Fuldain-Zabalza bikoteak dira protagonistak

Probak binaka egingo dituzte, baina txapelketa ofizialekoak baino lan arinagoak izango dira: harrijasotzen 63 kiloko harria erabiliko dute, 100ekoa barik; giza proban 250 kiloko, 400ekoa barik; aizkoran 45 ontzako enbor bi ebaki eta korrika kilometro bi egingo dituzte. Eta txingan 50 kilokoak erabiliko dituzte, txapelketa ofizialetan lez.



Mankomunitatea herririk herri dabil gune ibiltaria ipintzen. Argazkian, Atxondo.

Konpostajearen inguruko informazio gunea, Izurtzan

Astelehenean eta martitzenean Mankomunitateak gune bat ipiniko du frontoian eta izena emateko aukera egongo da

IZURTZA • J.D.

Durangaldeko Mankomunitateak edukiontzi marroien erabilera sustatzeko kanpaina berria hasi du eta informazio gune ibiltari bat Durangaldetik dabil, herririk herri, informazioa emateko eta zerbitzuan alta ematea errazteko. Datorren astean Izurtzako plazan egongo dira, egun bitan; hain zuzen ere, datorren astelehenean

16:00etatik 20:00etara egongo dira, eta martitzenean 10:30etik 14:30era. 'Zure esku dago: zaborra ala lurra' izenagaz, bizilagunak edukiontzi marroia erabiltzearen eta hondakin organikoaren konpostajea areagotzearen garrantziaz sentsibilizatu gura dituzte. Konpostajeagaz, hondakinak ongari bihurtu daitezke lorategi eta baratzeetarako.

Azaroaren 25aren harira, formakuntza saioa antolatu dute Otxandion

OTXANDIO • J.D.

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da eta egun horren harira formakuntza saio bat antolatu dute Otxandion Bagai-zan elkartearen eta udalaren artean. Saioak datozen hiru eguaztenetan izango dira:

Tailerrak datozen hiru eguaztenetan izango dira: azaroaren 9an, 16an eta 23an, kultur etxean

azaroren 9an, 16an eta 23an, 18:00etan, Otxandioko kultur etxean. Tailerretan, emakume izateak eta aldi berean adinean aurrera egiteak dakartzan diskriminazioak jorratu gura dituzte: hau da, genero-gaitik eta adinagaitik izaten diren diskriminazioak. Horregaitik, batez ere 55 urtetik gorako emakumeei zuzenduriko saioak izango dira.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO SARIAK



3 sarrera bikoitz
Azaroaren 12an,
Bizkaiko Bertsozale
Elkarateak antolatzen
duen Durangoko
saiorako.

*Eman izena gure webgunean.



Errigorako
otzara bat.

*Anbotokide guztien artean zozkatuko da.



Zaldibarko koralak
antolatutako **Benito
Lertxundiren
kontzertura** joateko
sarrera bikoitza.
Azaroaren 26an.

*Eman izena gure webgunean.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Benito Lertxundik kontzertua emango du azaroaren 26an Zaldibarren

Zaldibarko koralaren urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan antolatu dute musikari oriotarraren emanaldia. ANBOTOK sarrera bikoitz bat zozkatuko du Anbotokideen artean



Benito Lertxundi.

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko koralaren 75. urteurrena dela eta, taldekoak hainbat ekitaldi antolatzen dabilta. Egitarauaren barruan, Benito Lertxundi musikari oriotarrak kontzertua emango du azaroaren 26an, Olazar pilotalekuan. 19:00etan izango da. ANBOTOK sarrera bikoitz bat zozkatuko du Anbotokideen artean. Azaroaren 20ra arte parte hartu ahal izango da. Azaroaren 21ean egingo da zozketa.

Sarrerak Negu gogorren, Karobin eta Paularen tabernan, eta Ostargi eta Imendia dendetan daude salgai; aurretik 22 euroan erosi ahalko dira, eta leihatilan 25 euroan. Internet bidez ere erosi daitezke.

Zaldibarko abesbatza 1945eko azaroaren 30ean sortu zen, herriko abeslariak egitura formal batean antolaturiko abesbatza izateko helburuagaz. Zaldibarko koralak hainbat ekitaldi antolatu du urtean zehar. 2019an hasi ziren urteurrena prestatzen, baina pandemiaren eraginez orain arte atzeratu dituzte ekitaldiak.

Berrizko Hiltegixen aurkako azken eraso biak salatu dituzte

Birritan sartu dira gaztetxean lapurretan egitera

BERRIZ • A.M.

Berrizko Gaztetxearen aurkako erasoak salatu eta gune auto-gestionatuak babesteko elkarretaratzea egin zuten joan zen egunean, Berrizen. "Gune hauen babesa herritar guztion erantzukizuna da. Gaztetxearen kontrako erasoek ez dute bakarrik bertan gabiltzan lagunok kaltetzen. Erasoek Berrizko herria ere kaltetzen

dute, gaztetxeak, 24 urtean, kultura sortu eta hedatzeko paper garrantzitsua bete du eta", azaldu dute asanbladako kideek. Azken asteetan, Euskal Herriko eta Durangaldeko hainbat gaztetxeren aurkako erasoak eta lapurreta saiakerak salatu dituzte. Berrizko Hiltegixe gaztetxeaz gainera, Zaldibarko eta Elorrioko gaztetxeek ere salatu dituzte horrelakoak.



Joan zen egunean Berrizen egindako elkarretaratzea.

Zaldibarko Udalak Berdintasun Kontseiluan parte hartzera deitu du

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Berdintasun Sailak Berdintasun Kontseiluan parte hartzera deitu ditu herriko emakumeak. Batzarra azaroaren 7an izango da, liburutegi zaharrean, 18:00etan. Adin txikikoak

Adin txikikoak zaintzeko zerbitzua egongo da Zapatublaiko lokaletan

zaintzeko zerbitzua egongo da Zapatublaiko lokaletan, 17:30etik 20:30era, antolatuak aurreratu dutenez. Zerbitzu hori erabiltzeko, abisua eman behar da. Informazio gehiago izateko, berdintasuna@zaldibar.eus helbide elektronikora idatzi edo 94 682 70 16 telefono zenbakira deitu daiteke.

Ane Elordi Alburquerque zornotzarra da Korrikako zuzendari berria

"Horrelako egitasmo baten gidari izatea erronka itzela" dela adierazi du zornotzarrak



Ane Elordi Korrikako furgonetan.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

AEKren *Aizu!* aldizkariak sare sozialetan publiko egin duenez, eskualdeko kide bat, Ane Elordi Alburquerque zornotzarra, izango da aurrerantzean Korrikako zuzendari berria. Elordik Asier Amondo arabarraren lekukoa hartuko du. "Korrika zerbait izugarri handia da, Euskal Herri osoan egiten den egitasmorik erraldioenetarikoa, estatu mugak barik euskararen mugak baino ez dituen. Horrelako egitasmo baten gidari izatea erronka itzela

da", adierazi dio Elordik ANBO-Tori. "Zelako ekarpena egin gura nukeen? Korrika barrutik bizi izan dut, furgonetan, komunikazio taldean. Gazte sentitzen naiz eta freskotasuna eskaini dezake-dala uste dut", gaineratu du. Maila pertsonalean, urduritasun apur bat baduela aitortu du. "Txartoen eramango dudana irudi publiko bihurtze hori izango dela esango nuke, baina hori ere egingo dugu", esan du.

Korrikaren hurrengo edizioa, 2024koa, 23.a izango da. Oraindino asko falta da lasterketa erraldioak Euskal Herri osoa gau eta egun zeharkatzeko, baina AEK buru-belarri dabil lanean irailetik. 2024ko Korrika Gipuzkoako herriren batean hasi eta Baionan amaituko da.

Politikan

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE



Beti proposamenekin

Azken asteetan 2023ko aurrekontuak negoziatzen ari direla entzuten ari gara, bai Estatu mailan, bai Eusko Jaurlaritzan, eta Durangon ere horretan gabiltza.

Durangoko sozialistak beti egon gara hitz egiteko prest. Gu ez gara populistak, gu ez gaude beti ezezkoan, guztiz kontrakoa, beti aurkeztu ditugu bideragarriak diren proposamenak. Gure izaera proposatzaileari esker, iaz Durangoko Gobernu taldearekin akordio batera heldu ginen. Gure helburu bakarra Durango eta durangarren bizitza hobetzea da. Orain akordio horren emaitzak ikusten ari gara, esaterako: izotz pista jarriko da berriro (gainera aurten sintetikoak izango da), San Ignazio parkea estaliko da (ikusiko dugu noiz egiten den, oraindik pauso asko falta baitira honen amaiera ikusteko), eta hilabete honetan eskura jarri diren ostalaritzarako bonuak ere gure proposamen bat izan dira. Baina oraindik beste batzuk daude egin barik.

Akordio honetara iristeko, beste proposamen batzuei uko egin behar izan genien. Negoziazio batean alde biek gauzak galdu behar dituzte, baina, kasu honetan, gobernu taldeak ez zion ezeri uko egin. Gainera, urtean zehar 10 milioi euro baino gehiago atera ditu soberakinetik (ia zegoen guztia) oposizioarekin inolako elkarrizketarik izan gabe eta askotan dekretu batekin eginda. Hala ere, PSEtik aurten berriro proposamenak egin ditugu. Ikusiko dugu akordiorik lortzen dugun ala ez.

Durangaldea asteen

Abdulkamir Omar, Rojavako Atzerri ministroa, Durangon egon da

DURANGO | Durangoko udal agintariak Siriako Ipar-Ekialdeko Administrazio (Rojava) Atzerri ministroari, Omarri, harrera egin zioten barikuan. Kataluniako Parlamentaren ondoren, Durangoko Udala izan zen Rojava, Siriako Ipar-Ekialdeko administrazioa, subjektu politiko lez publikoki aitortu zuen estatu espainiarreko bigarren erakunde publikoa. Hori dela eta, kurduen ordezkariak Durangok egindako keinu hori eskertu du egunotan, bertara etorrita.



Atxondoko nagusien etxeko lanak amaituta, prest dago lehiaketa publikora ateratzeko

ATXONDO | Atxondoko Udalak amaitu du nagusien etxea berritzen. Lanek 48.000 euroko inbertsioa izan dute. Hobekuntzen artean, sukaldea egokitu da eta kanalizazio elektrikoak, iturgintzakoak, kanpoko arotzeriakoak eta aireztapen instalazioak berritu dituzte. Behin lanak amaituta, laster zerbitzua lehiaketa publikora aterako dute.



Astolako igerilekuko lanak 2023 hasierarako amaituta izatea aurreikusten dute

ABADIÑO | Uztaile amaieran hasi ziren Astolako igerilekuen estalki berria egiten, eta 2023ko lehenengo hiruhilekorako amaituta izatea aurreikusten du Abadiño Udalak. Lanek 1,4 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute, baina Abadiño Udalak hainbat diru laguntza jasoko du berau egiteko. "Funtsezko lana da guretzat, inork nekez aurreikusi zitzakeen arrazoiengaitik denboran atzeratu dena, baina gauzak ondo egin gura izan ditugu, epe luzean lehentasuna eman eta iraganeko akatsak errepikatzea saihesteko", azaldu du Mikel Garizabal alkateak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hasia espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



1^o
BAR GLORIA
Nerea Ibarzabal
(Susa)



2^o
BERRIZ ZENTAURU
Katixa Agirre
(Elkar)




3^o
M AMA EME UME
Estibru Fernandez/
Erika Lagoma
(Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso





LABIRINTOIA





NOR DA NOR?

TERANODON / ESPINOSAUROA /
TIRANOSAUROA / TRIZERAPTOSA / BRAKIOSAUROA












MARGOTU

Margotu ezazu beheko marrazkia gura duzun moduan.



ORIGAMI

Jarraitu pausoei eta txakurra egingo duzu.



BIKIAK

Beheko zuhaitz hauek guztiek bikia daukate. Bazara gai denak topatzeko?





'Serrana'

ANTZERKIA **BERRIZ** :: Azaroak 5

Herri baten identitate kulturean eta memorian barrena

Albadulake konpainiak *Serrana* ikuskizun zabal eta transbertsala aurkeztuko du, bihar, 19:00etan, Kultur Etxean. 'Serrana de la Vera' erromantzean sakontzen duen obra da, bai maila antropologikoan bai existentzialean. XV. mendeko Erromantzeari paralelo doan dramaturgiaren oinarria hiru pertsonaia izango dira, eta Erromantzea herriak berak konstatuko digu, bideo formatuan. Istorioa XXI. mendeko Serrana batena izan liteke. Testurik bakoa

eta lan koreografiko eta antzerki fisikoan oinarritua.

Herri baten identitate kulturean, memorian eta mitoaren sorkuntza kolektiboan barrena igaroko da ikuskizuna, eta Caro Barojaren honako hausnarketa du abiapuntu: "Herri batek nekez ahazten ditu bere jainko-jainkosak". Pertsonaia bakoitza naturaren elementu batez lotuz, inguruaren oreka naturaletik hasiko da kontakizuna gizakiak jasandako eraldaketan sakonduz.

Azaroaren 4an

BERRIZ antzerkia

'Munduari itzulia 80 egunetan' (Glu Glu konpainia), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO berbaldia

'Klima aldaketa, guztoi dagokigun arazoa' (Hizlaria: Elisa Sainz de Murieta EHUKo geologoa konpainia), 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO antzerkia

'Celestina infernal' (Teatro Corsario), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA musika

Noa Lur Quintet, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Musikaldiaren eskutik.

ZALDIBAR ipuinak

'Munstro bat liburutegian', 17:00etan (3-5 urte), eta, 17:30ean (6-9 urte), udal liburutegian.

Azaroaren 5ean

ABADIÑO antzerkia

'El más extraño idilio' (Arima Eskola), 19:00etan, Errota kultur etxean. Antzerkiñoren eskutik.

ZORNOTZA antzerkia

'Celestina infernal' (Teatro Corsario konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Azaroaren 6an

ABADIÑO pailazoak

Umeentzako ekintzak, 11:00etatik 14:00etara, Ferialekuan. Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 17:30ean, probalekuan.

DURANGO antzerkia

'Celestina infernal' (Teatro Corsario konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Azaroaren 10ean

ABADIÑO antzerkia

'Birritan bortxatua' (Aldatzen Laguntzen antzerki taldea), 19:00etan, Errota kultur etxean. Antzerkiñoren eskutik.

DURANGO musika

'Elurzuren hiru heriotzak' (Khontaira), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Durango Sor(tzai)leku bekaren laguntza izan duen ikuskizuna.

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. Rumbling Lips, 21:00etan, Ateneoan.

Azaroaren 11n

BERRIZ ikuskizuna

'Luze edo motz' (Lanku Kultur Zerbitzuak), 20:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. Move Quartet, 20:00etan, Ateneoan.

IURRETA musika

Les Fous, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Musikaldiaren eskutik.

ZORNOTZA antzerkia

'Magallanes y Elcano' (Eme2-Ajdnha konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Azaroaren 12an

ABADIÑO musika

Karol Mossakowski, 19:00etan, San Trokaz elizan. Organo kontzertua Bizkaiko Hotsak. Diego de Amezua VII. Organo Jaialdia.

BERRIZ antzerkia

'Conquistadores' (Proyecto Kultura), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO ikuskizuna

Euskadiko Orkestra Circus, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO dantza

Dantzaroa, 19:00etan, Ezkurdin.

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. Matteo Sansonetto, 22:00etan, Ateneoan.

ZORNOTZA musika

'Zinema atzo eta gaur' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Ateneoan.

Azaroaren 17ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa

'Bi Itsaso-Dos Mares-Dous Mares', Elias Cochón Reiren margolanak eta eskulturak, Zornotza Aretoa.

Azaroaren 27ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Zulo bat zeruan' (Karlos Martinez. B), Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• **El Vasco**

barikua 4: 19:30

domeka 6: 19:00

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• **Vasil**

barikua 4: 18:30/21:00

zapatua 5: 19:15 /21:30

domeka 6: 19:30

astelehena 7: 18:00 /20:15

martitena 8: 18:00 /20:15

eguztana 9: 19:00

• **La Forja de un campeón**

barikua 4: 18:30/21:00

zapatua 5: 19:15 /21:30

domeka 6: 19:30

astelehena 7: 18:00 /20:15

martitena 8: 18:00 /20:15

eguztana 9: 19:00

• **13 exorcismos**

barikua 4: 18:30/21:00

zapatua 5: 19:15 /21:30

domeka 6: 19:30

astelehena 7: 18:00 /20:15

martitena 8: 18:00 /20:15

• **Hopper: oilaskoerbia**

zapatua 5: 17:00

domeka 6: 17:00

• **Hopper: El pollolibre**

zapatua 5: 17:00

domeka 6: 17:00

• **Aida**

eguztana 9: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Black is Beltza II: Ainhua**

zapatua 5: 20:00

domeka 6: 20:00

astelehena 7: 20:00

• **Izurde mutikoa**

domeka 6: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **La piel del Tambor**

barikua 4: 20:00

domeka 6: 20:00

astelehena 7: 20:15

• **Boonie Bears, el parque salvaje**

domeka 6: 17:00

Leopoldo Zugaza kultur sustatzaile durangarra hil da

Gerediaga elkartearen eta Durangoko Azokaren sortzaileetarikoa izateaz gainera, hainbat arlo eta diziplinan aritu zen

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko eta Euskal Herriko kulturgintzan aitzindaria izan den Leopoldo Zugaza Fernández (Durango, 1932-2022) eguaztenean hil zen, 90 urte gaz. Hitz liburu-dendako sarreran dagoen egongela Zugazaren pasiorik handienaren lekuko izan da azken hamarkadetan: liburuak. Euskal kulturaren sustatzaile honek hainbat esparru eta diziplina jorratu du.

60ko hamarkadan, frankismo betean, Gerediaga elkartearen sorreran parte hartu zuen Carmen Miranda emazteagaz batera. Mikel Onandia arte historialariak dioenez, lehenengo ekimenak arte modernoko erakusketak izan ziren. "Durangoko lokal komertzialetan Bilboko Grises eta Mikeldi galerietako artelanak ekartzen zituen eta ekimen hori apurtzailea izan zen. 1966an Zubiaurretarrei omenaldia antolatu zuen", adierazi du Onandiak. Hala ere, Gerediaga Elkartearen barruan ekimenik ezagunena Liburu eta Disko Azokaren sorrera izan zen. Kurutziaza Ikastolaren sorreran ere parte hartu zuen, guraso legez.

70eko hamarkadan beste proiektu batean zentratu zen. Ezkurdiko parkean proiektu arkitektoniko berri bat diseinatzen zebiltzala jakin zuen. Horren berri izaterakoan,



Leopoldo Zugaza Sabino Arana Fundazioko saria jasotzen. Txetxu Berruezo.

Zugaza arkitektoekin hartu-emanean ipini zen, eta udalaren kudeaketaren bitartez erakusketa areto bat eraikitzea lortu zuen. Kudeaketaren ardura Zugazari eman zioten. "70eko eta 80ko hamarkadetan Ezkurdiko Aretoa erreferentzia bat izan zen euskal abangoardiarentzat. Beste leku askotan, hiriburue-

tatik aparte ez zegoen erakusketa aretorik. Ezkurdiko Erakusketaren ondorioz, Arte eta Historia Museoa sortu zen. Konbentzitutako zegoen hiriburuetatik herrietara deszentralizazioa egon behar zela eta kultura herrietara eraman behar zela", dio Onandiak. 1976an, Jesús Astigarragaz batera, Hitz liburu-denda

zabaldtu zuen. Durangon antolatu zuen beste ekimen anbiziotsu bat Bilera87 izan zen, 1987an. Egitarau horren barruan nazioarteko argazkilaririk ezagunenak ekarri zituen Durangora.

Ekimen hauek guztiak antolatzen zebilela, sustatzaile durangarrak hartu-eman zuzena izan

zuen sasoiko artista nagusienekin: Balerdigaz, Zumetagaz, Txillidagaz eta beste hainbateguz. "Bera bigarren mailan ibiltzen zen, itzalean, fokuetatik aparte, baina saltsa gutietan ibili zen. Dinamizatzaile bat izan da", gaineratu du Onandiak.

90eko hamarkadan, Ramón Serrasegaz batera, Zarautzeko Photomuseuma martxan ipini zuen. Gernikako Euskal Herria Museoa eta beste hainbat ekimen ere martxan ipini zituen. Aldizkari ugari sortu zuen, 1972an Ederti, esate baterako. Hitz liburu-denda bere etxea izan da beti. Bere txokoa zuen liburu-dendaren sorreran.

Arte Ederretan

Bilboko Arte Ederren Museoko patronatua aritu zen bitartean, Leopoldo Zugazak lan handia egin zuela gogoratu du Mikel Onandiak. "Patronatu horren bitartez, eraberritze eta modernizazio prozesu oso anbiziotsu bat martxan ipini zen eta Leopoldo horren bultzatzailea izan zen. Punta-puntako obrak erosi zituzten sasoi hartan, Oteizarenak, Txillidarenak, eta baita nazioarteko artistenak ere", gaineratu du arte adituak. Gaur egun, Miguel Zugaza (Leopoldoren semea) da Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria.

Durango Sor(tzaileen)Leku bekaren irabazleetako hiruren lanak aurkeztuko dituzte azaroan

Maidier Lopezen eta Ander Berrojalbizen, Ainhoa Olasoren eta Egoitz Etxebarriaren proiektuak aurkeztuko dituzte hile honetan zehar

KULTURA • ARITZ MALDONADO

Durango Sor(tzaileen)Leku bekaren laguntzagaz garatu diren hiru proiektu aurkeztuko dituzte azaroan San Agustin kulturgunean eta Zugaza zinema aretoan. Maidier

Lopezen eta Ander Berrojalbizen *Elurzuriren hiru heriotzak* izango da horietatik lehenengoa, *Edurnezuriren hiru heriotzak* Erdi Aroan kokatzen da. "Erronka handia izan da testua ikuskizunera moldatzea", esan dute. Ander Berrojalbiz arduratu da testuaz; emanaldiaz gainera, liburua ere kaleratuko dute, euskaraz eta gaztelaniaz.

Ainhoa Olasok *Hemen bizi da maitasuna* film laburra aurkeztuko du, Zugazan. 15 minutuko fikziozko lana da Olasorena. Bertan, Aroa Blanco aktore durangarrak parte hartu du, baita Ane Saguesek, Miren Gaztañagak eta Mila Goikoetxeak ere. "Horrelako bekek bultzada ekonomiko handia suposatzen dute", esan du Olasok. Kimuak katalogoa osatzeko ere izendatu dute. "Oso pozik nago lana Durangon aurkezteaz. Presioa sortzen dit, baina, aldi berean, etxekoen iritzia ezagutu

gura dut", gaineratu du. Azaroaren 17an emango dute film laburra.

Psikodelia ardatz

Egoitz Etxebarriaren "erritmo intimoak" dira *Amantraren* abiapuntua. Sorkuntzarako, Paul Bañosen eta Peru Magdalenaren laguntza izan du; Bañosek ekoizle lanak egin ditu, eta gitarra doinuak ere sartu ditu; Magdalena alde literarioaz arduratu da. Psikodelia ardatz hartuta, gonbidatu bereziak izango dituen emanaldia iragarri du Etxebarriak azaroaren 18rako: "Deialdira proiektu bat aurkeztu genuen eta ideia hori gauzatzera gatoz".

Aurkezpenean Ima Garrastatxu Durangoko alkateak eta Julian Ríos alkateordeak ere parte hartu zuten. Pozik agertu ziren biak, beken bitartez lagunduriko proiektuak aurkezteko sasoia heldu delako. "Beste

sektore batzuekin egin dugun lez, hala nola merkataritzagaz eta turismoagaz, gure herriko kultura eta sormen ehuna babesten jarraituko dugu", adierazi zuten.

Baonzarena ikusgai

Bestalde, Durangoko Arte eta Historia museoa June Baonzaren *Ama ta asunak* erakusketa egongo da ikusgai gaurtik aurrera. Baonza ere Durango Sor(tzaileen)Leku bekaren irabazleetarikoa bat da. Bere kasuan, amatasunari buruzko hausnarketa bat plazaratu gura du, sei testigantza abiapuntu hartuta. "Proiektu honek erresumin horiei guztiei heldu gura die. Adierazteko behar duten arnagunea eskaini, azalerratu eta loratu daitez. Gozamenari, minari, duintasun beragaz tokia eskaini, bizigarriagoak izango diren espazioak sortzeko", dio Baonzak.



Julían Ríos, Ander Berrojalbiz, Maidier López, Ainhoa Olaso, Egoitz Etxebarria eta Ima Garrastatxu.



Rumbling Lips.

Rumbling Lipsek emango dio hasiera Elorrioko XXXII. Jazz Blues jaialdiari

Durangaldean erreferentziazkoa den jazz eta blues jaialdia hilaren 10ean hasiko da

MUSIKA • A.M.

Jazz eta blues doinuek Elorrioko Ateneo beteko dute beste urte batez. Jaialdiak hiru hamarkadatik gora daramatza martxan, eta ohiko filosofiari eusten. Alde batetik, bertako eta inguruko zaletzat jazz eta blues doinuen eskaintza anitza edukitzea bilatzen dute, eta, bestetik, azken joeren erakusle izatea. Horrela, Rumbling Lips gipuzkoarren emandialdiagaz hasiko dute aurtengo edizioa, datorren egunean, hilak 10. Kontzertua 21:00etan hasiko da. Zapatua eta domekan, Move

Quartetek eta Matteo Sansonetok emango dituzte zuzenekoak, hurrenez hurren. Move laukoteak musika herrikoi garaikidea jazzagaz uztartzen du; Matteo Sansonetto italiarrak Chicago ikutuko bluesa jorratzen du. Antolatzaileen esanetan, Sansonetto "egungo bluesman-ik aktiboenetarikoa da, eklektikoa eta trebea". Bigarren asteburuan, Juan de Diego tronpetista bilbotarrak bisitatuko du Ateneo, *Grebalariak* disko berria aurkezteko asmoagaz; laukote akustiko lez grabatu du lana, eta horrela aurkeztuko

dute. Azaroaren 18an izango da kontzertua, 20:00etan. Hilaren 19an, Mingo Balaguer blueslaria arituko da, 22:00etan. Balaguerrek 1987an ekin zion bere ibilbide musikari, eta ordutik 17 disko kaleratu ditu.

Bluesa Bergararik

Jaialdia borobiltzeko, azaroaren 20an Diablues eta Bluezifer bikoteak emango du kontzertua; bergararrek 2014tik daramate blues akustikoa jorratzen. Emandialdia Portalekuan izango da, 20:00etan.

Lau kontzertuk osatuko dute Iurretako Musikaldia

Barikuan izango da lehenengo kontzertua, 19:00etan; Noa Lurrek emango du, boskote formatuan

MUSIKA • A.M.

Noa Lurren kontzertuagaz ekingo diote Musikaldiari Iurretan, gaur. *Gaur* diskoa aurkeztuko dute, boskote formatuan; 19:00etan izango da kontzertua. Azaroaren 11n, Les Fous hirukote donostiarraren txanda izango da; ahots hirukotean oinarrituriko kontzertua emango dute, pianoaren eta perkusioaren laguntzagaz. Azaroaren 19an, Irati Bilbaok joko du kontzertua; *Begin* diskoaren aurkezpen biran murgildurik jarraitzen du abeslari durangarrak. Kontzertu sorta ixteko, Mikel

Azpirozek *Islak* diskoa aurkeztuko du; Azpiroz sei urtegez hasi zen pianoa jotzen, eta musikaria izateaz gainera konpositorea eta ekoizlea ere bada; proiektu propioez gainera Travellin Brothers, Duncan Dhu eta Jabier Muguza musikariek lan egin du, besteak beste. Emanaldietarako sarrerak doakoak izango dira eta Ibarretxe kultur etxean jaso beharko dira ikuskizuna baino astebete lehenago, edo egunean bertan 18:30etik aurrera. Kontzertu guztiak Ibarretxe kultur etxean izango dira.



Noa Lur. CARMEN HACHE

Gai librean

Txapelketaren zurrunbiloan

Euskaldunak zerbait badu, dena zalan-tzan jartzeko eta dena eztabaidagarri bihurtzeko gaitasuna da. Ez diot zerbait negatiboa izango balitz lez, izan ere herri honetan dugun jarrera kritikoak, eraldatzaileak eta eraikitzaileak (nahiz eta suntsitzailetik ere badugun dezente) jartzen ditugu praktikan, eta historikoki euskal eskuina nagusi den arren, herri honek badaki zer den onargarria eta zer ez, lege eta moral sozialetik harago doazen ideiak zeintzuk diren eta zeintzuk ez. Baina euskaldunok badugu bertute bat munduagaz amankomunean: dena eztabaidatzea, sarri testuingurua behar bezala ezagutu barik.

Joan zen asteburuan Donibane Garazin egon nintzen Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren finalurrekoa entzuten. Saioko garaile Oihana Iguaranek apustu pertsonal sendoa egin zuen,



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

Ez da gai txikia, interesgarria baizik. Baina ez duzue uste, iritzirik emateko, testuingurua jakin beharko genukeela lehenbizi?

hitanoz abestu baitzuen saioaren zati handi batean. Bada, Twitterren mundu magikoan irakurri nuen ea zergatik egin zuen toka, eta ez noka, euskal gizartearen erakusle bat ote zen mutilekin toka egitera ausartzea eta Nerea Elustondogaz egin zuen ariketan noka ez egitea. Ez da gai txikia, oso interesgarria baizik. Baina ez duzue uste, iritzirik emateko, testuingurua jakin beharko genukeela lehenbizi? Zer hitz egin zuten bertsolariek saioaren aurretik? Halere, nik dakarkidan galdera da: zergatik txapelketan?

Bertsolaritza txapelketetatik ahalik eta gehien aldentzea izan ohi da ber-

tsolaritzaren helburua, nahiz eta gaur egun bertsolaritzaren zati batek txapelketaren beharra duen, plaza gehiago edukitzeko aukera sor baitezake, eta urte osoan kantatzen ez duenak txapelketan erakus dezake zertarako gai den. Baina gaiok sasoi honetan plazaratzeak txapelketaren garrantzia berrestea ekartzen du. Beste kontu bat izango litzateke Iguaranek abantaila aterako balu toka abesten, eta hor beste gai bat aterako litzateke, erregistroa, baina ez da kasua. Gaiak berak badu nahikoa mami lehenago edo geroago jorratu zedin.

Bertsoa txapelketatik alendu gura dugu, baina debateak txapelketan sortzen dira. Gaian izan dezakedan iritzia alde batera utzita, plazaratu dezagun gaia beste eremu batzuetan. Aprobetxa ditzagun plazak debatea sortzeko, bertsoa txapelketa heldu ezin daitekeen lekuetara heldu daiteke eta.

Ibaizabal eskubaloi taldeak hiru garaipenegaz hasi du denboraldia eta, taldeko postu denak sendotuta, Euskadiko ligara igo gura dute

Ibaizabalek lez orain arteko partidu guztiak irabazi dituzten beste talde bi daude Bizkaian: durangarren hurrengo partidu biak euren kontrakoak dira

ESKUBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Ibaizabal eskubaloi taldeak helburu argi bat dauka: Euskadi mailako ligara igotzea. Sortu zenetik hona, seniorren taldea Bizkaiko ligan dabil, aurten langa hori gainditzeko kapaz sentitzen dira eta ahalegin guztiak horretara bideratuko dituzte. "Aukerak ikusten ditugu, konpromisoagaz gabiltza, topera, eta serio hartu dugu helburua", dio Nerea Oliver taldeko kapitainak.

Jomuga anbiziotsua da, baina arrazoi sendoetan oinarritzen dena. Alde batetik, oso talde lehiakorra dute. Iaz senior mailako talde bi atera zituzten, harrobiak funtzionatzen duen seinale, baina aurten, dela ikasketengaitik edo dela beste konturen batengaitik, jokalaririk ez dagoela dira eta talde bigaz errenka ibili beharrean, denak batean batzea erabaki dute. "Gurago izan dugu talde indartsu bat atera, bigaz erdizka ibili baino. Horrela, postu guztiak indartzea lortu dugu", azaldu du Oliverrek. Beraz, kalitatean irabazi dute eta kantitatean ere ez dabilta txarto: 16 jokalaririk dituzte denboraldiari aurre egiteko.

Hirutik hiru garaipen

Zumitz horiekin eta Bego Oskoz entrenatzailearen aginduetara, orbanik bako liga hasiera osatzen dabilta: hiru partidu jokatu eta hirurak irabazi. Partidu lehiatuak izan dira denak, baina, azkenean, durangarren aldera egin dute. "Ez genekien zer itxaron, hasieran pieza denak bat etortzea kosta egiten delako, baina ondo joan da eta oso pozik gaude", adierazi du Oliverrek.



Ibaizabal eskubaloi taldeko aurtengo jokalariek.

Une honetan, Bizkaiko ligako hiru taldek baino ezin dute esan jokaturiko dena irabazi dutela: Sidenor Basauri eta San Adrian dira beste biak. Bada, durangarren hurrengo norgehiagoka biak euren kontrakoak dira: zapatuan Basaurira joango dira eta hurrengo asteburuan Bilboko taldea hartuko dute etxean. Beharbada aurkari zuzenen kontrako partidu bi horiek ideia argiago bat emango dute Ibaizabalen benetako mailaren inguruan. Aurkariak behintzat aldekoak dira, Oliverrek gogoratu duenez. "Iaz

"Mailaz igotzeko aukera ikusten dugu eta serio hartuko dugu helburua"

NERIA OLIVER

Jokalaririk ez dagoela dira eta seniorretan talde biak batean batzea erabaki dute aurten

garaipena lortu genuen talde bien kontra. Badakigu partidu horiek irabazita lider egongo ginatekeena, eta lanean buru-belarri gabiltza hori lortzeko", gaineratu du.

Liga erregularrak 18 jardunaldi ditu. Horren ondoren, lehenengo lau sailkatuek Lauko Finala jokatuko dute eta irabazlea Euskadiko mailara igoko da. Beraz, Ibaizabalen lehenengo helburua aurreneko lauren artean geratzea da.

Harrobi sendoa

Ibaizabalen harrobia osasuntsu

dagoela esan daiteke. Urteetan "lan handia" egin dute ikastetxeekin, eta horren fruituak jasotzen dabilta. Nesketan, haur kategoriako talde bat, kadeteetako bi eta gazteetako beste bat dute. Beraz, umetatik nagusietarainoko katea osatuta dago. Kate horri eskerrak izan ziren kapaz seniorretan talde bi ateratzeko iaz. Iraganen kadeteek eta gazteek lortu izan dute Euskadi mailako ligara igotzea.

Mutiletan, ostera, talde bat dute haur kategorian eta adar hori sendotzen jarraitzeko asmoa dute.



Aurrera Ondarroak hiru puntuak eraman zituen Tabiratik. IÑAKI BEITIA/ONDARROAKO KE

Durangoko Kulturala garaipen bila azken sailkatuaren etxera, ligako goiko postuen haria ez galtzeko

Joan zen asteburuan etxean jasoriko porrota ahaztu eta ligako oilarren multzoan mantendu gura dute durangarrek

FUTBOLA • J.D.

Joan zen asteburuko partidua estropezu lez hartu daiteke. Ondarroako Aurrera taldeak hiru puntuak eraman zituen Tabiratik, ezustean: 0-2. Kostaldeko taldeak laugarren minutuan sartu zuten lehenengo gola, eta 45.ean bigarrena. Gol psikologikoak biak, hasiera-hasieran eta lehenengo zatiko hondarrean. Bigarren zatian Durangoko Kulturalak eginahalak egin zituen gutxienez

markagailua orekatzeko, baina alferrik.

Orain arte Tabiran jokaturiko partiduetako datuak ez dira onak: hiru porrot eta garaipen bat. Etxetik kanpora hobeto dabilta, jokaturiko partiduen erdiak irabazita. Asteburuan aukera ona dute estatistika hori hobetzeko, Aurrera de Vitoria azken sailkatuaren zelaia bisitatuko dute eta. Gasteizko taldeak etxean jokaturiko lau partiduak galdu ditu. Garaipen batezaz,

lehenengo zazpi sailkatuen artean mantenduko litzateke Durangoko kluba.

Ohorezko Mailan, ezinean

Maila bat beherago, Bizkaiko Ohorezko Mailan, oraingo nahi eta ezinean dabilta eskualdeko hiru ordezkariak. Iurretako dago hiruretatik ondoen kokatuta, jaitsieratik puntu bira. Elorrio eta Abadiño, ostera, jaitsiera postuetan daude berriro. Azken horrek, Abadiño, joan zen denboraldian lortu zuen Lehenatasuneko Mailatik Ohorezko Mailara igotzea.

Teknei Zornotza gora begira ipini da Sevillako Morón taldea menderatuta

Emaizta horri eskerrak, orain porrotak baino garaipen gehiago ditu talde zornotzarrak



Teknei Zornotza aurtengo ligako parridu batean.

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan, antzerako egoeran zeuden talde bik neurtu zituzten indarrak Larrea kiroldegian. Bai Teknei Zornotza eta bai Sevillako Minuscenter Morón taldeak sailkapenaren erdian zeuden, garaipenak beste porrotekin. Talde biek garaipena behar zuten gora begira ipintzeko. Helburua zornotzarrek bete zuten eta orain, Zilarrezko Ligako bost jardunaldi joan direnean, sailkapenean laugarren tokian kokatu dira.

Mikel Garitaonandiak zuzenduriko taldea gehiago izan zen, eta hirugarren laurdeko joko erauntsian (31-12) eta Alberto

Aipatzekoak dira Alberto Cabreraren 26 puntuak eta Charles Minlend-en 29ak azken garaipenean

Cabreraren egun inspiratuan (26 puntu eta 39ko balorazioa) oinarritu zuen garaipena. Cabrerak, Lenovo Tenerife taldeak utzitako kanariarrak, hirugarren denboraldia du zornotzarrekin. Aipagarria da Charles Minlend-en ekarpena ere, 29 puntugaz. Kanpoko jokoa indartzeko asmoagaz ekarri dute 25 urteko kamerun-


darra. Orokorrean, Larreara joan ziren zaleek gozatua hartu zuten, etxeko taldeak alde handiagaz irabazteaz gainera 100 puntuko langa gainditzea lortu zuelako: 101-79.

Emakumeak, goian

Iaz Bizkaitik Euskadi mailara igo ostean, Zornotza Saskibaloi Taldeko emakumeak aurreikuspenak hobetzen dabilta. Ez dira mailari eusteagaz bakarrik konformatzen, eta sailkapenaren goiko aldean daude, lau garaipen eta porrot bakarragaz. Zapatuan Unamuno liderra hartuko dute etxean. Bilboko taldeak jokaturiko bost partiduetatik irabazi ditu.

Aitor Elordik lau eta erdiko finalerdia jokatu du, bihar, Jokin Altunaren kontra

Mallabitarrek orain arteko partidu denak irabazita eta sasoi betean egingo dio aurre kaiolako espezialistari handienari



Aitor Elordik txapelketako partidu guztiak irabazi ditu.

PILOTA • J.D.

Aitor Elordik eta Jokin Altunak lau eta erdiko finalera heltzea bilatuko dute, domeka arratsaldean, Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Mallabitarrek kaiolako espezialistari handiena izango du aurrez aurre, Altunak 2016tik honako final guztiak jokatu eta eurretari hiru irabazi ditu eta. Baina balentriak inoiz izatekotan, aurtien behar du. Konfiantzaz gainezka, Elordi sekulako txapelketa osatzen dabil eta orain arteko partidu guztiak irabazi ditu, Unai Laso eta Joseba Ezkurdia handiak ere mendeen hartuta. Iaz ere elkarren kontra jokatu zuten Elordik

eta Altunak lau eta erdiko ligaxkan. Orduan, Altunari aurre egiteko dohainak badituela erakutsi zuen Elordik, baina azken txanpan bere aukeretan gehiago sinestea falta izan zitzaion. Aurtien, beste mentalitate batez, ez zaio gabezia horren arrastorik igarri orain arte.

Elordiren azken 'biktima' Daniel Elezkano izan da, ligaxkako azken partiduan. Bietatik batek ere ez zuen ezer jokoan —Elordi matematikoki sailkatuta zegoen eta Elezkano, oster, kanporatuta— baina mallabitarrek finala balitz lez hartu zuen norgehiagoka eta 22-8 irabazi zion Zarata-moko pilotariari.

Jokaldia

Anekdotak

Bizitzako beste arlo askotan lez, mendi lasterketan ere gertatzen dira anekdotak eta bitxikeriak han-hemenka. Asko nire izen-abizenak direla-eta gertatu zaizkit. Oihane deitu didate behin baino gehiagotan, Oihana Kortazar ere bai, erratuta. Eta nire abizenarekin azelako komeriak, batez ere nazioarteko probetan mikrofonoa eskuetan dutenek. *Long* eta *difficult* ei da, luzea eta zaila ahoskatzeko. Ez dakit sekula ondo esan duten. Zuzentzen ahaleginduz gero ere alferrik.

Anekdotak kuriozoso bat, Italian, Susa herrian. BEI K3 kilometro bertikalaren bezperan, igo behar genuen mendiari buruz berba egiten hasi zitzaidan hango gizonzko bat, italiaraz. Rocciame-lone deitzen dela mendia, santutegi bat dagoela tontorrean, eta Juan Pablo II.a



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Nire abizenarekin azelako komeriak, batez ere nazioarteko probetan mikrofonoa dutenek. 'Long' eta 'difficult' ei da

Norwegian, gizonzko bat hurreratu zitzaidan. Ikurrina seinatu eta esan zidan: Bilboko bandera da, ezta?

Aita Santua goialde hartan ibili zela. Aita Santua kirolaria zela eta oinez igo gura zuela, baina azkenean helikopterotik ikusi behar izan zuela tontorreko Ama Birjina. Lasterketa egunean, korrikalari nafar bat helikopteroan bajatu behar

izan zuten, oinaztarri batek goitik behe-ra zeharkatuta. Zorionez, ez zitzaion ezer larririk gertatu.

Bulgariako Pirin Extreme lasterketan, aurtien, hiru-lau kaletxakur bidelagun izan ditugu korrikalariok. "Hona be ekarri dozuz txakurrak, ala?", galdetu zidan Munduko Kopan argazkilaria lanetan dabilen Julen arrasatearrak. Helmugaratu nintzenerako txakurrak han zeuden, ez dakit gure aurretik joanda ala buelta erdi hartuta.

Norwegian, Tromsø Skyrace lasterketan, helmugaratu ostean lurrean jesarrita nengoela ikurrina eskuetan, jatorri afrikarreko gizonzko bat hurreratu zitzaidan. Gaztelaniaz esan zidan urte askoan Durangon bizi izan zela, bertan lan egiten zuela, eta orain Norwegian bizi dela. Ikurrina seinatu eta galdetu zidan, gaztelaniaz: Bilboko bandera da, ezta?



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

BERRIZ: 75m². 3 logela, komuna eta sukaldea. **C.E.E=G 66.000 €**
AUKERA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 116.000 €**
ZALDIBAR: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. terraa. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**
BERRIZ: (MURGOITIO) 80 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela, Terraza, Argitsua. **C.E.E.=E. 110.000€**
MATIEN: 2 logela, komuna, sukaldea handia. Igogailua. C.E.E=F.129.000
 DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F 145.000€**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa, eskegitokia eta egongela handia. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 310.000€**
LEMOA: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. 2 terraza. Ganbara. **C.E.E=G 149.000 €**
MARTXOAREN 8KO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E= E 330.000 €**
ALLUITZ: 4 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia terrazarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E= F 245.000 €**
ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. terraza. **GARAJE ITXIA. C.E.E= E. 188.000 €**
EZKURDI: 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. garajea aukeran. **C.E.E=E. 240.000 €**
ASK. ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea aukeran. C.E.E= E. 275.000 €
KALEBARRIA. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= F. 150.000€**
ABADIÑO (TERESA LARIZ): 81m². 2 logela, komuna eta egongela. Terraza. Ganbara. **C.E.E.= E. 160.000 €**
JUAN OLAZARAN. Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Eskegitokia. Garajea eta trasatelekua. C.E.E= B. Jantzia.
KOMENTUKALE: 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **C.E.E.= E. 239.500 €**
SAN FRANTZISKO. 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia ganbararekin. **C.E.E.=E. 195.000 €**
TRONPERRI: 117m². Erdialdean. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txoko komunitarioa. **C.E.E.=F. 286.000 €**
ABADIÑO-DUPLEX: Eguzkitsua. 2 solairutan banatuta. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Trastelekua solairuarekin eta garajea. **C.E.E= E. 230.000€.**
MARTXOAREN 8'KO: 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. **C.E.E.= F. 248.000€**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
ABADIÑO
ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.
BERRIZ
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.
BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.
ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzenko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIUAN
BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguesado.com



MATIENA 89 m²
3 logela
TRANABARREN: : Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m²-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.
229.000 € C.E.E:Bidean



DURANGO 75 m²
3 logela
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guneetatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.
187.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 95,5 m²
3 logela
EZKURDI: 95,5 m². Egongela handia, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela eta eskegitokia (patioa). Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. ITE oraintsu pasatakoa. Erdi berriztatua. Garajea aukeran + 25.000 € (etxebizitzatik gertu).
275.000 € C.E.E:G



DURANGO 90 m²
3 logela
ZABALE: (1.989. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Etxebizitza altua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Garajea.
349.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 93 m²
3 logela
IBAIZABAL: (2.006 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoaldea) Argitsua. Leku onean kokatua (zonalde berdeak, eta zerbitzuguneak) Egoera onean. 29,70 m²-ko garaje bikoitza itxia eta 10,67m²-ko ganbara.
380.000 € C.E.E: Bidean



MUNTSARATS 76,4 m²
4 logela
ARLOZABAL: 76,4 m². Galeria, 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7,50 m²-ko trastelekua eta 14,29 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
189.000 € C.E.E:Bidean

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**
JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**
BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**
KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**
SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**
TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**
//ABADIÑO
MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**
//BERRIZ
BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 99.000€ / E.E.Z=F**
BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**
MURGOITIO AUZO: Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**
PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**
//GARAI
MOMOTIO AUZO: Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.
//IURRETA
DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**
//IZURTZA
ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**
//OTXANDIO
GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**
//BERRIAK
DURANGO: Montebideo etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **275.000 € / E.E.Z=F**

Botikak

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00	DOMEKA, 6 - 09:00-09:00
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00
ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00	DE DIEGO INTXAURRONGO 22. - DURANGO
ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-13:30	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO INTXAURRONGO 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 9 09:00-09:00
FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO
JAIO-ABENDIBA ERREKAKALE 6. - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	EGUENA, 10 - 09:00-09:00
09:00-14:00	BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



June Echevarriak 9 urte egiten ditu azaroaren 5ean. Zorionak, polit, tio Yosuren eta izeko Carmenen partez.



Zorionak, **Maddi!** Gaur 5 urte egiten dozuz! Mosu haundi bat etxekuen partez eta ondo-ondo pasau zeure egune!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 19° / 8° ☀️

ASTELEHENA ↓ 20° / 9° ☁️

EGUAZTENA ↓ 18° / 12° 🌧️

DOMEKA ↓ 21° / 9° ☁️

MARTITZENA ↓ 20° / 14° 🌧️

EGUENA ↓ 22° / 11° ☁️

Eskelak

**Leopoldo
Zugaza Fernández**
(1932 - 2022)

Carmen Miranda Zubietaren alarguna

Gerediaga elkarteari,
Durangaldeari eta
kulturgintzari emandako
guztiagatik,
eskerrik asko.
Beti gogoan.

Gerediaga Elkartea.



MUSIKALDIA

PLAZA MUGATUAK:
SARRERA GOBIDAPENAREKIN
Gonbidapenak Ibarretxe Kultur Etxean
jasoko dira ikuskizunaren aurreko astean
edo egunean bertan 18:30etatik aurrera.

AZAROAK 4
19:00 KULTUR ETXEAN
"NOA LUR QUINTET"

AZAROAK 11
19:00 KULTUR ETXEAN
"LES FOUS"

AZAROAK 19
19:00 KULTUR ETXEAN
"IRATI BILBAO"

ABENDUAK 2
19:00 KULTUR ETXEAN
"MIKEL AZPIROZ - ISLAK"



"Erreketen inguruan sortzen den giroa oso aberasgarria izan da"

Asier eta Urko Garate orain dela 20 bat urte hasi ziren burduntzian erreketak egiten, Angel aitagaz batera. Joan zen urriren 16an, azken erreketak egin zuten Azpeitian



Asier Garate Arellano

Burduntzian erreketak egin dituzte
DURANGO 01/1987

Urko Garate Arellano

Burduntzian erreketak egin dituzte
DURANGO 01/1989

DURANGO • AITZIBER BASAURI
Garate Arellano familia makina bat txahal, oilasko eta bildots burduntzian erretakoa da Euskal Herrian zehar. Asierrek eta Urkok aita izan dute maisu, Angel. Urtean 40-50 erreketak inguru egin izan dituzte. Orain, burduntzian erretzeari uztea erabaki dute. Elkarrengatik denbora asko emateko aukera eman die erreketek, eta gauzak ondo egin izanaren sentsazioagaz doaz. Familiarentzat lan egin dute, "oso aberasgarria den sentsazio kooperatibo horregaz", diotenez.

Zerk eraman zaituzte uzteko erabakia hartzera?

Asier: Hasten den guztia amaitu egiten da. Erreketetan 17-18 urtegar hasi ginen, urte asko egin dugu honetan eta oso momentu onak bizi izan ditugu. Baina bizitzako une honetan beste gauza batzuk ere baditugu gogoan: lana, alaba... Gainera, aita ere jubilatuko da. Urko: Dugun denbora libreka beste era batera aprobetxatu gura dugu, ez bakarrik erreketetarako erabili. Lan honek bere helburuak bete ditu, eta uztea erabaki dugu.

Penarik hartu duzue?

Asier: Beti ematen du pena apur bat. Baina denboratxo bat daramagu honetan pentsatzen. Toki batzuetan oso gustura ibili gara, baina

udatik apirilera arteko sasoi oso intentsoa da. Orduan diozu ez du-

Burduntzian erretzeko, denbora eta pazientzia behar dira. Esperientziagaz ikasten da okelak emandako seinaleak igartzen

zula falta igarriko.

Urko: Gainera, pandemiak dena arindu du. Urte hauetako etenaldiaren ondoren berriro hastea oso gogorra izan zen. Denok gustura

gaude harturiko erabakiagaz. Erreketen inguruan sortzen den giroa oso aberasgarria izan da, leku eta jende piloa ezagutu dugu, jaiak antolatze askotariko moduak... Horregaitik ematen du pena apur bat uztea. Baina ez dut falta igarriko.

Zein da burduntzian erretzeko sekretua?

Asier: Denbora eta pazientzia behar dira. Esperientziagaz ikasten da okelak emandako seinaleak igartzen. Bestalde, altuera eta berotasun egokian parrillan mantentzeak ematen dio okelari behar den puntua. Denbora hartzea klabea da, zuku guztia ateratzeko.

Urko: Erreketak urteetan egin ondoren, esperientziagaz hartu dugu jakituria hori. Bildotsa edo oilaskoa zatitzen hasi aurretik badakigu noiz dagoen eginda.

Baduzue erreketaren bat bereziki gogoan?

Asier: Donibane Garazin (Nafarroa Beherea), Orbaizetatik (Nafarroa) gertu dagoen mendian egin izan ditugun erreketak oso bereziak izan dira. Nafarroako eta Iparraldeko abeltzainak batzen dituen jaia egin dute, oso leku polita da. Behin, gainera, txahala sei zatitan moztuta etorri zen; normalean, kanalean zatituta etortzen dena. Sei zatitan moztuta burduntzian erretzea oso gatxa da.

Urko: Bai, puzzle bat egin behar izan genuen.

Pasarte asko izango dituzue.

Urko: Batzuk. Erromon, data txarto eman, eta eguna baino astebete lehenago agertu ginen erreketak egitera. Txahala erretzen hasita geunden okerraz abisatu zigutenean. Dena batu eta joan egin ginen. Beste behin ziklogenesiak harrapatu gintuen. Gaez genbiltzan lanean, eta Asier lo zegoen. Izugarrizko haizea hasi zen. Karpa ezin eutsi egon ginen.

Zuek ere baduzue 'edabe' berezia. Giltzapean geratuko da?

Asier: Igual saldu egin beharko dugu! (barrez). Bestela, Durangoko jaietan txapelketaren bat antolatzen denerako gorde, irabazteko.

Izango duzue tentaziorik bueltatzeko?

Asier: Ez dut uste.

Urko: Ez. Behar izana izanez gero, igual bai. Bestela ez!

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea / Jubilatua



Ez da zuzena

Beste kirol askoren artean saskibaloia dut gustuko. Aste batzuk direla, Europako txapelketa ikusten nengoela guztiz harrituta eta minduta geratu nintzen Lorenzo Brown, Espainiako selekzio basea, egun gutxitan nazionalizatu zutela entzun nuenean.

Honelako egoerak ikusita argi eta garbi geratzen da denok ez ditugula aukera berdinak legearen aurrean, nabariak direla desberdintasunak.

Latinoamerika, Asia edo Afrikatik gure artera lanean datozenak hiru urte egon behar dira enpadronatuta, orain bi urtera jaitsi omen da ikastaro bat egiten badute, paperak tramitatzen hasiteko eta gero beste zenbait urte nazionalitatea eskuratzeko.

Ukrainako gerratik ihes etorri direnei ere berehala eman diete baimena bertan ikasi edo lan egiteko.

Zergatik ez da berdin jokatzeko denekin? Lana duten momentutik paperak izan beharko litzukete eskura bertan geratzeko. Administrazio publikoa zenbat diru ari da galtzen egoera horretan? Gero diote diru beltz asko ari dela hara eta hona. Nola ez da ibiliko ba ez badituzte legalizatzen? Hilero, zenbat milioi euro geratzen dira batu gabe egoera hau dela eta?

Ez dugu ahaztu behar euskaldun asko honengatik edo horregatik beraien etxea utzi eta beste lurralde batzuetara joan zirela, doazela eta joango direla bizimodua aurrera ateratzeko, eta bertan duintasunez tratatzea nahi dugu.

Espero dut Durangaldean bizi diren eta oso ezagun eta ardurak handia duten politikariek idatzi hau irakurtzea eta ahal duten guztia egitea Madrilen, hainbeste migratzailearen egoera normalizatzeko.

Ea lasterrera egoera honi buelta ematen zaion. Eskerririk asko!

Estetika gida

anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491